



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 20a

109. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru lege proiektua, Nafarroako liburategien sistema arautzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako liburategien sistema arautzen duena. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (25. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru lege proiektua, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2002ko apirilaren 15eko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko iriailaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. TITULUARI **AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Artikuluaren testuaren ordez honako hau proposatzen da:

1. artikulua. Lege honen helburua.

Lege honen helburua da Nafarroako liburutegien sistema planifikatu, sortu, antolatu, jardun eta koordinatzeko beharrezkoak diren funtsezko oinarriak eta egiturak ezartzea eta, halaber, liburutegien jarduna egokia izatea eta informazioaren gizarteak eta teknologia berriek zedarrituriko esparru berrian, irakurketa, informazioa, jakintza eta kultura bereganatzeko pertsona guztiek duten eskubideaz baliatzea ahalbidetuko duten zerbitzuak bermatzea, Nafarroa osoan.

2. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua

1. Liburutegia da, lege honen ondorioetarako, liburuez, aldizkakoak diren eta ez diren argitalpenez, grabatuez, mapez, soinu, ikus-entzunezko eta multimedia grabazioez, dokumentazio grafiko ez eta bestelako material bibliografikoez, eskuiz-

kribuez, inprimakiez edo edozein euskarritan erreproduziturikoez osaturiko edozein multzo antolatu, baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek bildu, gorde eta zabaltzea, baita pertsona guztien eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika, espazio eta langileen arloetakoak– erabiliz informazioa, jakintza, ikerketa, hezkuntza, kultura eta aisia helarazteko.

2. Liburutegiak, lege honen ondorioetarako, publikoak, interes publikokoak edo pribatuak izan dira.

a) Liburutegi publikoa: erakunde publikoek sortua eta mantendua, zerbitzu publikoa emateko helburuarekin.

b) Interes publikoko liburutegia: izaera pribatuko pertsona fisikoek edo juridikoek sortua eta zerbitzu publikoa ematen duena.

c) Liburutegi pribatua: jabetza pribatukoa, pertsona fisikoena edo juridikoena, eta jabeek beraiek erabiltzeko dena.

3. artikulua. Bildumaren kontzeptua

Lege honen ondorioetarako, bilduma da interese bereziko edozein funts, indarra duten arauak liburutegietarako ezartzen duen tratamendu bibliotekonomikoa ez duena. Bildumak zehaztu eta babesteko moduak Nafarroako kultur ondareari buruzko legeek ezarriko dituzte.

4. artikulua. Aplikazio esparrua.

Lege honen aplikazio esparruak honakoak hartzen ditu:

a) Zerbitzu publikoa ematen duten eta Nafarroako liburutegien sisteman sarturik dauden liburutegiak, titularitate publikokoak zein pribatukoak.

b) Kultur balio berezia duten eta Nafarroako kultur ondarekotzat harturik dauden liburutegiak eta bildumak, publikoak zein pribatuak, ondare hori arautzen duen legeriarekin bat.

5. artikulua. Informazio bibliografikoa eskura izatea.

1. Liburutegien funts guztien katalogazio bate-ratu eta partekatua eta haien elkarren ezagutza bermatzeko, Nafarroako Gobernuak katalogo kolektibo bakar batean bilduko ditu Nafarroako liburutegien sistemako kide diren liburutegien funtsen erreferentzia bibliografikoa, eta koordinatu eta kudeatu eginen du katalogo hori.

2. Nafarroako Gobernuak bermatuko du aurreko idatz-zatian aipatzen den katalogo kolektiboan dagoen informazioa herritar guztien eskura egotea; behar diren neurriak hartuko dira etnia, erlijio zein hizkuntz gutxiengoaren eskubideak aintzat har daitezzen.

3. Nolanahi ere, segurtasun eta kontserbazio arrazoiak direla-eta, eskuizkribuak, inkunableak eta zehaztuko diren beste funts batzuk eskuratze-ko aukera murriztu ahalko da, ikertzaileei horiek kontsultatu eta aztertze bidea itxi gabe.

4. Lege honen aplikazio esparruan dauden liburutegiak ematen diren erregelamenduzko xedapenei lotuko zaizkie eta informazioa trukatu ahal izateko beharrezkoak diren neurri teknikoak hartuko dituzte.

6. artikulua. Lankidetzaren printzipioak

Nafarroako Gobernuak lankidetzan arituko da toki administrazioekin eta beste erakunde batzuekin, bere funtsetarako liburutegi egiturak sustatu eta hobetzeko xedearekin.

Zioak: Modua eta edukia bete gogo diren helburuetarako egokiagoa iruditzen zaigu.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe proposatzen da:

“Foru lege honen xedea da Nafarroako liburutegien sistema arautzea, bai eta herritar guztiek irakurketa eta informazioa eskura izan dezaten bermatu eta erraztea jakintzaren gizartearen eta teknologia berrien eremuaren barrenean.

Zioak: Zuzenketa sintaktikoez gain, testu berriak “Foru Komunitateko” herritarren aipamena kentzen du, herritar guzti-guztiek, edozein dela haien jatorria edo bizitokia, eskubidea dutelako Nafarroako liburutegien sistemak ahalbidetzen duen irakurketa eta informazioa eskura izateko.

“Bermatu” aditza gehitu dugu foru legearen xedea hobeki zehazteko eta, halaber, “jakintzaren gizartearen eta teknologia berrien eremuaren barrenean” ere, Nafarroako liburutegi sistemak ematen dituen zerbitzuetan duten garrantzia adierazteko.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe proposatzen da:

Liburutegia da, foru lege honen ondorioetarako, liburuak, aldizkako argitalpenak, grabatuek, mapek, soinu, ikus-entzunezko eta multimedia grabazioek, dokumentazio grafikoez eta bestelako material bibliografikoez, eskuizkribuek, inprimakiek edo edozein euskarritan erreproduziturikoez osaturiko edozein multzo antolatua, baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek bildu, hautatu, katalogatu, gorde eta zabaltzea, baita pertsona guztien eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika, espazio eta langileen arloetakoak– erabiliz informazioa, ikerketa, hezkuntza eta aisia helarazteko.

Zioak: Hobekuntza teknikoak eta Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearekin bat etortzeko.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bilduma bibliografikoak ez dira foru lege honen arauen xede.

Artikuluak berak dio, amaieran “Historia eta kultur ondarearen arloko legeek ezarriko dute bildumen zehaztapena eta babesa”. Ez da bidezkoa, beraz, Nafarroako liburutegien sistemari buruzko foru legean zehaztea.

Kultur ondareari buruzko foru legean araututako gaia da.

5. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 1. artikuluan adierazitakoari ez dio deus eransten, eta artikulua 2. puntua ez da bat heldu foru legearen izenarekin ez eta haren xedearekin ere.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“1. Nafarroako liburutegien sistema Nafarroako Foru Komunitateko liburutegien eta liburutegi-organoko eta zerbitzuen multzo antolatua da.

2. Nafarroako liburutegien sistema honakoek osaturik dago:

a) Liburutegien arloan eskumenak dituzten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki administrazioaren organoak.

b) Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

d) Unibertsitateetako liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta liburutegiaren titularrak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izenpeturiko hitzarmenaren bidez -Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena- Nafarroako liburutegien sisteman sartzen diren gainerako liburutegiak. Hitzarmen horretan zehaztuko dira liburutegiaren jardunbidea, instalazioak, zerbitzuak, langileak eta finantzabidea, bai eta helburuak betetzeko behar diren beste gai guztiak.

e) irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako eskola liburutegiak erregelamendu bidez ezartzen den moduan.”

Zioak: Foru Lege proposamenaren 5. artikuluan dagoen definizioa zabaldu eta liburutegien sistemaren xedea adierazten du.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“6. artikulua. Nafarroako liburutegien sisteman sartzearen ondorioak.

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegi guztien jardunbidea Nafarroako Gobernuak emaniko erregelamenduzko xedapenei lotuko zaie, bai eta sisteman sartzeko aurreko artikulua aipatzen duen hitzarmenari ere, halakorik badago.

2. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiak laguntza zerbitzuez baliatu ahalko dira, baita erregelamenduz ezarriko diren edo sisteman sartzeko hitzarmenean adierazirik dauden beste laguntza edo lankidetzak mota batzuez ere.

3. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiek parte hartu beharko dute lankidetzak programa komunetan, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren liburutegien arloko organo eskudunak arau indardunak oro betetzen dituen egiaztatzeko eskatutako datu bibliografikoak eta estatistikoak eta edozein informazio eman beharko dio liburutegiak eta organo horrek jarduna ikuskatzeko izendatzen dituen funtzionarioei utzi beharko die haien lana egiten.

Zioak: Liburutegien sisteman sartzek dakartzan ondorioak ez daude aurreikusirik foru lege proposamenean.

8. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI**
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa, lerrokada berri bat erantsiz. Hona:

“Liburutegien ardura duten agintariak eta liburutegiek antolakuntzako egiturak eta ikuskapen eta kontrol tresnak garatu beharko dituzte elkarrekin, liburutegiko zerbitzuetarako funts publikoek ahal den errentagarritasun handiena berma dezaten; horretarako, etekin ebaluazio egokiak egin eta liburutegi mota desberdinen kalitatea kontrolatzeko bideak taxutu beharko dituzte.”

Zioak: Gure ustez, legeak jaso behar ditu liburutegi zerbitzuen kalitatearen kudeaketaren eta ebaluazioaren inguruko gaiak. Ildo horretan, Europako Kontseiluaren eta EBLIDAREN jarraibideetan, 7. puntuan, zuzenketa honetan jasotakoa adierazirik dago. Kalitatearen ebaluazio eta kontrolerako sistema objektibo eta fidagarria ezarri behar da, ahuleziak eta alderdi sendoak antzemanen dituen, hari esker uneoro bermatzeko herritarrentzako zerbitzua ahalik eta onena izatea.

II. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

II. titulua, "Nafarroako liburutegi publikoen sistema" aldatzeko zuzenketa. Proposatutako testuaren ordez honako hau proposatzen da:

II. TITULUA

Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

I. KAPITULUA Arau orokorrak

7. artikulua. Definizioa eta sailkapena

Sistema hau, pertsona guztien behar orokorreki nola erabiltzaile batzuen behar zehatzei erantzuteko egun dauden liburutegi zerbitzuen multzo antolatua da. Hauexek osatzen dute:

- a) Nafarroako Liburutegi Nagusia.
- b) Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea.

c) Unibertsitateetako liburutegiak, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegiak, titularitate publikoko liburutegi espezializatuak eta titularitate pribatuko liburutegi espezializatuak, baldin eta hitzarmen baten bidez beren funtsak jendeak erabiltzeko moduan jartzen badituzte.

d) Nafarroako Gobernuak administrazioak sortutako liburutegiak eta autonomia erkidegoen edo estatuaren titularitateko zentroetako liburutegi osagarriak, horien kudeaketa Nafarroako Gobernuak eskualdatua duen kasuan.

e) Aipatutako liburutegi horien menpeko liburutegi zerbitzuak, finkoak zein ibiltariak.

Nafarroan dauden liburutegi baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, Nafarroako liburutegi sistemaren esparru bakoitzeko liburutegiek lankidetzarako bideak ezarriko dituzte egokitzat jotzen diren hitzarmenen bitartez.

8. artikulua. Liburutegi publikoaren kontzeptua.

1. Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailetako informazio zerbitzu anitza eskaini eta pertsona guztien eskura daudenak, hala jende guztiarentzat, oro har, nola erabiltzaile talde zehatz batzuentzat.

2. Liburutegi publikoek eskainiko dituzten zerbitzu oinarrizkoak libreak eta doakoak izanen dira eta zerbitzu bereziak eskainiko dizkiete helduei eta haurrei.

3. Liburutegi publikoek, tokian tokiko gizarte laguntzako zerbitzuen laguntzaz, etxetik atera ezinik dauden irakurleei liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskainiko diete, baita liburutegi zerbitzuak ere bertako ospitaleei, presondegiei, zaharretxeei eta abegi etxeei.

4. Liburutegi publikoek erantzuna emanen diete irakurtzeko arazoak dituztenen beharrei, liburu soinudunen edo bestelako ikus-entzunezko dokumentuen bidez edo irakurketa errazteko pentsaturik dauden beste material inpreso batzuk erabiliz.

5. Liburutegi publikoen funtsak denentzat eskura daude, eta mailegurako erabili ahal izanen dira. Nolanahi ere, segurtasuna edo kontserbazioa dela-eta beharrezkoa denean, funts horietatik batzuen erabilera mugatu daiteke, behar den justifikazio txostena egin eta interesatuari helarazi ondoren.

6. Orobat, liburutegi publikoek, Nafarroako errealitate soziolinguistikoa kontuan harturik, euskaraz eta gaztelaniaz emanen dituzte zerbitzuak.

9. artikulua. Zerbitzuen kartera

1. Zerbitzuen kartera da Nafarroako liburutegi publikoaren sistemak eskaintzen dituen zerbitzuen multzoa, zeinek zeinentzat ematen dituen adierazirik. Zerbitzuen kartera horretan herritarrei zuzenduriko liburutegi zerbitzuak deskribatzen dira, eta zehaztu egiten da zein den, horiek betetzeko, administrazioak hartzen duen konpromisoa, nahikotasun eta kalitate maila dagokienez.

2. Nafarroako Gobernuak liburutegi publikoaren sistemaren zerbitzuen kartera prestatu, garatu, aztertu eta gaurkotuko du eta oinarrizko zerbitzuak Nafarroako liburutegi publiko guztietan ematen dela bermatuko du.

3. Guztiarekin ere, helduentzako nola haur eta gazteentzako oinarrizko zerbitzu gutxienekoak hauexek dira:

- a) Argitalpen monografikoak eta seriatuak arretan bertan kontsultatzea.
- b) Agiriak kopiatzea legez ezarritako arauekin bat.
- c) Informazioa eta erreferentzia.
- d) Liburuaren banakako mailegua.
- e) Liburutegiaren arteko mailegua.

f) Informazioa eskuratzea teknologia berrien bidez.

4. Oinarrizko zerbitzuak emateko kontuan hartu beharko dira eskola eta unibertsitate liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta interes publikoak.

10. artikulua. Administrazioaren eskumenak

Nafarroako Gobernuarena eta toki administrazioena, biena da Nafarroako liburutegien sistemaren gaineko erantzukizuna. Ildo horretan, liburutegien arloko politikaren diseinua eta plangintza bi administrazioen artean gauzatu beharko dute, ezartzen diren tresnen bitartez.

Administrazio horien jarduketa zenbait printzipiotan oinarrituko da –koordinazioa, eraginkortasuna, ekonomia eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua– eta, halaber, lege hau garatuko duten xedapenetan eta bi entitateek helburu horrekin izenpetuko dituzten hitzarmenetan.

Nafarroako Gobernuak honako eskumen hauek, besteak beste, izanen ditu sisteman sarturiko liburutegi eta bildumen inguruan:

a) Dagokion toki administrazioarekin batera, liburutegi estatikoak sortu eta mantentzea 1.500 biztanletik gorako Nafarroako herri guztietan, irakurketa publikoaren mapak eta xede horrekin izenpetuko diren hitzarmenek ezarritakoari jarraituz.

b) 1.500 biztanletik beherako herrietan, liburutegi estatikorik ez dutenetan, bizi direnek irakurketa publikoaz baliatzeko aukera izan dezaten bermatzea, liburutegi zabalkunderako zerbitzuen bitartez.

c) Gai honekin zerikusia duten alderdiak, bereziki ondokoak, arautu eta garatu behar dituzten erregelamenduak ematea:

Liburutegien kudeaketaren oinarri orokorrak eta jardunbidea.

Azpiegituren baldintza teknikoak.

Funtsen katalogazioa eta sailkapena.

Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboaren mantentze lana.

Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegien koordinazioa.

Langileria

a) Irakurketa publikoaren mapa egin eta gaurkoturik edukitzea.

b) Legea eta hura garatzen duten araudiak betetzen ote diren ikuskatzea.

c) Bost urtean behin liburutegi zerbitzuen plan estrategiko bat taxutzea, bertan liburutegi zerbitzuen jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak garatzeko, epe motz eta luzerako helburuak zehazteko eta horiek erdieste-ko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publikoaren mapak eta kudeaketarako gainerrako tresnek zedarrituriko esparruan.

d) Nafarroako liburutegi publikoen sistema kudeatzea.

e) Sisteman sarturiko liburutegien jardunbidea koordinatzea, bere gain dituzten eginkizunak bete ahal ditzaten.

f) Liburutegien eta bildumen antolaketa eta zerbitzuak ikuskatzea, indardun legedia betetzen ote den egiaztatzeke.

g) Bestelako administrazio eta erakundeekin lankidetzan aritzea, hitzarmenak izenpetuz, ezarritako moduan.

h) Nafarroako liburutegien eta bildumen erregistroa onartu, antolatu, gaurkotu eta kudeatzea.

Toki administrazioen esku daude honako eskumen hauek:

a) Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan, liburutegi egonkorak sortu eta mantentzea 1.500 biztanletik gorako herrietan, irakurketa publikoaren mapak eta bi aldean artean izenpeturiko hitzarmenek ezarritako moduan.

b) 1.500 biztanletik gorako herrietan, liburutegi egonkorrik ez dutenetan, parte hartzea, ezarritako neurrian, irakurketa publikoaren zerbitzua ematen.

c) Irakurketa publikoa koordinatu eta sustatzea udalerrian, horretarako baliabideak kontsignatuz aurrekontuetako kontusailetan.

d) Kultur politika koordinatua eta integratzailea taxutzea, zeinetan liburutegiak komunitatearen funtsezko kultur eragileetako baten papera beteko duen.

11. artikulua. Eskumenen garapena

Eskumenen garapena, zehaztutako guztiak barne, irakurketa publikoaren mapan aurreikusiko da, eta Nafarroako Gobernuak toki administrazioekin izenpetuko dituen hitzarmenek bilduko dute.

12. artikulua. Erregistroa

Nafarroako Gobernuak Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturik dauden liburutegien

erregistro gaurkotua eramanen du, eta, herritarrentzako beste zerbitzu publiko bat den aldetik, zabaldu egingen du.

13. artikulua. Liburutegi publikoen sisteman sartzea

Edozein liburutegi Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sartzeko Nafarroako Gobernuak departamentu eskudunean kontseilari dagoenak emaniko ebazpena beharko da, liburutegiaren kudeaketan zerikusia duten aldeek hitzarmen bat sinatu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Hitzarmen horretan agertuko dira ordutegi, zerbitzuei, finantzazioari eta instalazioei buruzko arauak eta helburuak betetzeko beharrezkoa den beste zeinahi ere.

14. artikulua. Sisteman sartzeko baldintzak eta ondorioak

1. Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturiko liburutegi guztiak lege honetan ezarritakoari eta Nafarroako Gobernuak emaniko errege-lamenduzko xedapenei lotuko zaizkie.

2. Liburutegi bat Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sartzen denean une horretan dauden laguntza zerbitzuei baliatzeko eskubidearen jabe egiten da.

3. Liburutegi publikoen sisteman sarturiko liburutegi beharrik daude lankidetzarako programa komunetan parte hartzera, bai eta eskatzen zaizkien datu bibliografiko eta estatistikoak bildu eta bidaltzera ere.

15. artikulua. Liburutegi publikoen sistemaren ikuskaritza

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko zentro guztiak beharrik daude Kultura Departamentuari ematera arau indardunak betetzen direla egiaztatzen eskatzen dien informazio guztia; departamentuaren ikuskatzaileak liburutegira joanez gero, bertara sartu eta haien lana egiten utziko diete.

2. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegi bat ikuskaturik, une horretan dauden legezko edo erregelamenduzko arauak ez direla betetzen ondorioztatzen bada, liburutegiaren titularrak Kultura Departamentuak ezarriko dituen neurri zuzentzaileak hartu beharko ditu. Hala egin ezean, liburutegiaren titularrak laguntza zerbitzuei baliatzeko eskubidea galduko du.

16. artikulua. Irakurketa publikoaren mapa.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako irakurketa publikoaren mapa egin eta gaurkoturik edukiko du, bertan jasotzeko irakurketa publikoaren behar

erak eta populazio gune bakoitzari dagokion zerbitzu mota. Irakurketa publikoaren mapa eta horien aldaketak Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak onartu beharko dituzte, Nafarroako Liburutegien Kontseiluari eta toki administrazioa ordezkatzaren duten elkarteei kontsulta egin eta haien balorazioak biltzen dituzten txostenak hartu ondoren.

2. Administrazio publikoek liburutegi ekipamenduan eta dokumentu funtsetan egiten dituzten inbertsioak irakurketa publikoaren mapan ezartzen diren aurreikuspenei eta irizpideei lotuko zaizkie.

3. Liburutegien kudeaketarako, Nafarroako liburutegien sistema irakurketa eremutan antolatuko da eta horietako bakoitzaren buru arduradun edo koordinatzaile bat arituko da. Eremu horien definizioa eta mugak irakurketa publikoaren mapan egonen dira ezarririk.

17. artikulua. Laguntza zerbitzuak.

1. Laguntza zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegi guztientzako zerbitzuak sortzeko unitate zentral bat bezala daude pentsaturik. Modu zentralizatuan betetzen dituzte liburutegiko lan edo/eta eginkizunak, eta sistemako liburutegiei sostengu logistikoa eta materiala ematen diete, baita aholku ere zerbitzua garatzen eta kudeatzen.

2. Laguntza zerbitzuen eginkizunak, besteak beste, hauexek izanen dira:

a) Aholkularitza eta laguntza funtsak eskuratzeko.

b) Liburutegiko ikerketa eta langileen prestakuntza etengabea eta birziklapena.

c) Prozesaturiko materialak liburutegietara igortzea.

d) Irakurketa publikoaren katalogo kolektiboa koordinatu eta kudeatzea.

e) Informazio bibliografikoko argitalpenen eta erreferentziarako dokumentuen edizioa.

f) Irakurketa sustatzeko eta erabiltzaileei prestakuntza eta aholku emateko kanpaina orokorrak gauzatzea, eta liburutegiei jarduera horietarako koordinazioa eta sostengua eskaintzea.

g) Liburutegiei sostengu tekniko eta informatikoa ematea.

h) Diziiplina askotako aholkua eta laguntza ematea, hainbat gaitan: plangintza eta ebaluazioa, lokalak eta ekipamendua, segurtasuna, ergonomia eta abar.

i) Liburutegien sustapena.

18. artikulua. Langileak

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegiek eta liburutegi zerbitzuek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai kalifikazioan eta bete beharreko eginkizunek eskatzen duten maila profesionalean, arlo honetako arau indardunekin eta irakurketa publikoaren mapan ezarritakoarekin bat.

2. Langileen baldintza profesionalak eta lanpostuak eskuratzeko modua kasu bakoitzean aplikatzekoa den legerian aurreikusitakoari jarraikiz zehaztuko dira. Nolanahi ere, epaimahaiko kideetako batek, gutxienez, liburuzainen ordezkaria izan beharko du, eskainitako lanpostuaren maila berekoa edo goragokoa.

3. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegietako langileen prestakuntza etengabea bermatuko da eta, horretarako, behar adina baliabide egokiak erabiliko dira.

II. KAPITULUA

Nafarroako Liburutegi Nagusia

19. artikulua. Definizioa

1. Nafarroako Liburutegi Nagusia Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta, beraz, sistema osatzen dutenen arteko lokailua, baita sistema horren eta gainerako liburutegi sistemen artekoa ere. Halaber, Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena da. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa eta euskararen hizkuntza eremuarekin zerikusia daukana bildu, gorde eta zabaltea da, idatzizko ekoizpena barne –aldizkakoa izan zein ez–, ikusizkoa, soinuak eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena. Obra bakoitzeko bi ale, gutxienez, bilduko ditu, edozein delarik ere erabilitako euskarria edo teknika.

2. Nafarroako Liburutegi Nagusia ondare bibliografikoaren kontserbazioaz eta zabalkundeaz arduratuko da. Ondare horrek hartzen ditu, aurrerago deskribaturiko obrez gain, Nafarroan dauden balio historiko edo kultural bereziko obrak ere, ondare historiko eta kulturalari buruzko legeetan ezarritakoari jarraikiz.

3. Nafarroako Liburutegi Nagusiak, gure kulturaren gune bibliografikoetan behinenak, kontsulta eta ikerketa zientifikorako gune unibertsalaren izaerari eutsiko dio, dagozkion erosketen bidez.

20. artikulua. Egitura

Nafarroako Liburutegi Nagusia behar diren ataletan, unitatetan, departamentutan eta/edo

bulegotan egituratuko da, erregelamenduzko xedapen egokien bitartez eta irakurketa publikoaren mapak ezartzen duenarekin bat.

21. artikulua. Eginkizunak

1. Nafarroako Liburutegi Nagusiak, liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu lurralde osoan:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak eta euskararen hizkuntz eremuko lurraldeekin, edozein delarik arrazoa, zerikusia dutenak bildu, gorde eta zabaltea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da eta bide horretatik ailegatzen zaizkion Nafarroako obra bibliografikoak erosten ditu.

b) Nafarroarekin eta euskararen hizkuntz eremuko lurraldeekin, edozein delarik arrazoa, zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltea.

c) Diziplina askotako funts orokorrak eta maila unibertsalekoak, jakintzaren arlo desberdinetan ikertzeko egokiak direnak, eskuratu, gorde eta zabaltea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoa osatzen duten obrak, nonahi daudelarik, sustatu, bildu, gorde eta horien kontserbazioaz eta zainketaz arduratzea.

e) Nafarroako bibliografia eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa prestatu, kudeatu eta aldizka zabaltea, erabiltzaileen beharrek eskatzen duten euskarrietan, unitate desberdinekin koordinaturik, Nafarroako liburutegi publikoen sisteman dauden liburutegiei hautatze eta katalogatze lanak errazteko helburuarekin.

f) Nafarroako ondare bibliografikoa babesteko laguntza zerbitzuak ematea, bereziki zaharberritze, mikrofilmaz eta sobran edo errepikaturik dauden lanak kudeatzeko zerbitzuak.

g) Nafarroako liburutegi publikoen sistema barruan liburutegien arteko mailegua planifikatu eta koordinatzea.

h) Nafarroaren interesekoak diren datu bibliografikoaren baseak garatu, mantendu eta eskura izateko bideak jartzea.

i) Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen duten liburutegiak elkar lotzeko ekimenak aurrera ateratzea.

j) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerako guztiak.

2. Nafarroako Liburutegi Nagusiak nazioarteko arau bibliografikoak bereganatuko ditu eta Nafarroako liburutegien sistema osoaren katalogazioa arautu behar dituztenak prestatuko ditu. Nafarroako Liburutegiak autoritateen katalogoa gainbegiratu, balidatu eta zerrenda bakar batean bateratuko du.

22. artikulua. Lege gordailuaren bulegoak

Nafarroako lege gordailuaren bulegoen eginkizuna da Nafarroan sortzen diren obra guztien ale kopuru zehatz bat bildu eta horiek gorde eta erabiltzaileen eskura jartzen duten zentroetara bidaltzea.

III. KAPITULUA

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarea

23. artikulua. Definizioa

Nafarroako liburutegi publikoen multzo antolatua eta horiek koordinatu eta zuzentzen dituzten kudeaketa organoak dira Liburutegi Publikoen Sarea.

24. artikulua. Liburutegi publikoen sarea osatzen duten liburutegiak

1. Honakoak dira Liburutegi Publikoen Sareko partaide:

a) Titularitate publikoko liburutegi guztiak.

b) Sarean sartzen diren titularitate pribatuko liburutegi publiko guztiak, zentroaren titularraren adostasuna izanik eta behar den hitzarmena izenpetu baldin badute.

c) Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen estatuko titularitateko liburutegiak, horietan eragina duen estatuko araudia alde batera utzi gabe.

2. Salbuespen gisa, sarearen premiek eraginda eta titularra ados baldin badago, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeen liburutegiak ere sartu ahalko dira. Horien titularra Nafarroako Gobernua denean, beharrezkoa da Hezkuntza Departamentuak aldeko txostena ematea aurretik.

25. artikulua. Egitura

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen barruan liburutegi eta liburutegi zerbitzu mota hauek daude, eginkizunen arabera:

a) Eremuko liburutegi zentralak.

b) Hiriko liburutegi zentralak.

c) Herrietako liburutegiak.

d) Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak.

26. artikulua. Eremuko liburutegi zentralak

Dagoen lekuan liburutegi publikoaren oinarriko zerbitzuen kartera eskaintzeaz gain, dagokion eremuan liburutegiko zabalkunderako eta liburutegien arteko mailegurako euskarri moduan jarduten dutenak dira. Haren eremuko bildumaren erantzulea da eta tokian tokikoaz gaindiko lanak eta liburutegi egonkorrik ez duten herriei buruzkoak erosi eta gordetzeko betebeharra du.

Hedadura edo konplexutasuna dela-eta, eremu bat zenbait aldetan banaturik dagoenean, horietako bakoitzean liburutegi bat egonen da, lehenago deskribaturiko eginkizunak bete ditzan.

27. artikulua. Hiriko liburutegi zentralak.

1. Hiriko liburutegi zentralak udalerriko gaineko liburutegiak eta liburutegi zabalkunderako zerbitzuak koordinatzen dituzte, irakurketa publikoaren mapak ezarritako moduan, eta aholkuak eta laguntza ematen dizkiete.

2. Iruñeko hirian liburutegi batek, gutxienez, egon beharko du, gutxienez, hiriko liburutegi zentraleri eskatzen zaizkien baldintzak eta dituzten eginkizunak beteko dituen, Nafarroako Liburutegi Nagusiak liburutegi zentral gisa egin behar duen koordinazio lana baztertu gabe.

28. artikulua. Herrietako liburutegiak

Irakurketa publikoaren mapan ezarritako baldintza gutxienekoak bete eta dauden herrietan informazio eta irakurketa publikoaren zerbitzua ematen dutenak dira. 1.500 biztanletik gorako herri guztiek liburutegia izan beharko dute.

29. artikulua. Liburutegi zerbitzu ibiltariak

Eremuko liburutegi zentral baten edo hiriko liburutegi zentral baten menpeko diren liburutegi zerbitzu ibiltarien helburua da irakurketa publikoa eskaintzea zerbitzu egonkorrik ez dagoen tokietan.

30. artikulua. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak

Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, erantzun beharreko premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: zerbitzu ibiltariak, teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke baina, betiere,

eremuko liburutegi zentralak koordinaturik beteko dira.

IV. KAPITULUA

Unibertsitateetako liburutegiak, irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetakoak eta espezializatuak

31. artikulua. Unibertsitateetako liburutegiak

1. Unibertsitateetako liburutegiek funts bibliografiko espezializatuak biltzen dituzte eta zerbitzua ematen diete unibertsitateko komunitateari, ikertzaileei eta, unibertsitateak baimena ematen badu, hala eskatzen duten partikularrei.

2. Unibertsitateetako liburutegiak gainerako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzen dira Nafarroako Liburutegi Nagusiaren bidez, katalogaziorako, liburutegien arteko mailegurako eta balio historiko edo kultural nabarmeneko funtsak babesteko, alde batera utzi gabe bestelako koordinazio bide batzuk, zerbitzu komunak ematearren beste liburutegi batzuekin ezarri daitezkeanak.

32. artikulua. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegiak

1. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegiak oinarrizko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan sartutakoak; eginkizun pedagogikoak betetzeko behar den materiala eskura jartzen dute, kultura bereganatzeko lagungarri dira eta ikasleei liburutegiko funtsak erabiltzen erakusten diete, haien prestakuntza eta aisialdia osatu eta zabaltzeko bitartekoak ematearekin batera. Beraz, betekizun funtsezkoa du ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

2. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe guztietan jarriko da liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, hezkuntza komunitate osoarentzat irekia eta legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adina baliabide –dokumentalak, tokiaren aldetikoak eta langileenak– izanen dituena.

3. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako liburutegien antolaketa, jardunbidea, jarduerak eta finantziazioa erregelamendu batek arautuko ditu berariaz.

4. Irakasleei laguntzeko zentroek programatuko dute eskola liburutegi publikoek arduratuko diren irakasleen prestakuntza berezia, bai eta eskola liburutegia oinarrizko baliabide-zentro gisa erabiltzearen inguruan irakasle guztiei eman beharreko prestakuntza orokorra ere.

33. artikulua. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetako liburutegien eta liburutegi publiko- en arteko lotura

1. Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoa, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.

2. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak erregelamenduz ezarriko dira.

34. artikulua. Liburutegi espezializatuak

1. Funts itxia dutenak dira, batez ere jakintza- ren arlo berezi baten barrenean.

2. Liburutegi espezializatuak, titularitate publiko zein pribatukoak, zerbitzu publikoa ematen dute, beren mugekin, eta Nafarroako Liburutegi Nagusiaren bitartez koordinatzen dira gainerako liburutegien sistemarekin.

Zioak: Modua eta edukia bete gogo diren helburuetarako egokiagoa iruditzen zaigu.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“1. Nafarroako liburutegi publikoen sistema liburutegi publikoen multzo antolatua da eta, irakurketa publikoaren mapan ezarritakoarekin bat, herritar guztien eskura jartzen du liburutegi zerbitzuen kartera.

2. Honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen dutenak:

a) Nafarroako Liburutegia.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin hitzarmenak izenpetuz Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturiko udal eta eskualdeko liburutegi publikoak.

Zioak: 1. idatz-zatiak sistemaren definizio generikoa jaso du eta hobeki argitzen du sisteman sarturiko liburutegiak herritar guztiei zabalik daudenak direla.

2. idatz-zatiak sistemaren egitura zehaztu eta foru lege proposamenaren 9. artikulua- ren esanahia jasotzen du.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. "deszentralizazioa eta partaidetza" hitzen atzean ondoko testua gehitzea proposatzen da.

"...eta liburutegiaren eta haren zerbitzuen ebaluazioa.." Eta lerrokadaren amaieran:

Liburutegi publikoek, haien ebaluazioa errazteko, urtero eginen dute jardueraren eta jardunbidearen datu nagusiak eta hurrengo urteko aurreikuspenak bilduko dituen oroit-idazki bat.

Zioak: Liburutegiaren ebaluazioaren printzipio modernoa, dagoeneko Europako beste herrialde batzuetan, Finlandian, kasu, ezarririk dagoena erantsi diogu.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau honen edukia 7. artikulurako proposaturiko testuan sarturik dago.

13. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honakoa kentzea proposatzen da: Lehen lerrokadaren azken zatia ("Horrez gain... presondegietan dauden kasuan") eta azken lerrokada ("Liburutegi publikoek...").

Zioak: Kendutakoaren esanahia beste artikuluetan batzuetan ageri da.

14. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. "gure erki-degoko" hitzen ordez "Nafarroako Foru Komunitateko" jartzea proposatzen da:

Zioak: Terminologia egokiagoa da foru lege baten testurako.

15. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI**
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa, azken lerrokadarako testu hau proposatzen baitugu:

"Gutxienezko zerbitzu oinarritzotzat eta beraz, liburutegi guztiek eskaini beharreko zerbitzu libre eta doakotzat hauek hartuko dira:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen irakurketa eta kontsulta aretoan.

b) Orientazioa, informazio bibliografikoa eta erreferentzia.

c) Liburu eta ikus-entzunezko materialen mailegua.

d) Informazio eta Internet zerbitzua.

e) Erabiltzaileentzako prestakuntza."

Zioak: Gure ustez beharrezkoa da oinarritzko zerbitzutzat hartzea internet zerbitzua, kontuan harturik eskaria handia dela eta garrantzizkoa dela pertsona guztien eskura jartzea Internetek eskaintzen dituen aukerak.

16. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI**
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

"Liburutegi publikoek, tokian tokiko gizarte laguntzako zerbitzuen laguntzaz, etxetik atera ezinik dauden irakurleei liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskainiko diete, baita liburutegi zerbitzuak ere bertako ospitaleei, presondegiei, zaharretxeei eta abegi etxeei."

Zioak: Irakurketa eta liburutegiko gainerako zerbitzuak jartzea horiek eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen eskura.

17. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI**
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa, lerrokada bat erantsiz. Hona:

Liburutegi publikoek, tokian tokiko gizarte laguntzako zerbitzuen laguntzaz, etxetik atera ezinik dauden irakurleei liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskainiko diete, baita liburutegi zerbitzuak ere bertako ospitaleei, presondegiei, zaharretxeei eta abegi etxeei.

Zioak: Gizatalde horiek liburutegi publikoen zerbitzuez baliatu ahal izatea.

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, 10 bis, gehitzeko zuzenketa.

“Liburutegi zerbitzuen definizioa.

1. Hauexek dira liburutegi zerbitzu oinarrizkoak:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen, dokumentu elektronikoen, ikus-entzunezko eta multimedien irakurketa eta kontsulta, aretoan.

b) Informazioa eta erreferentzia, orokorrak eta Europako Batasunekoak, eskura izatea.

c) Liburuen eta bestelako materialen banakako mailegua.

d) Liburutegien arteko mailegua.

e) Internet eta lineako informazio zerbitzuak eskura izatea.

2. Gutxieneko zerbitzuak hauexek dira:

a) Erreferentziako lan nagusien kontsulta.

b) Liburuen banakako mailegua.

3. Nafarroako liburutegi publiko guztiak eskainiko dituzte dohainik oinarrizko zerbitzuak. Halere, liburutegien arteko mailegu zerbitzua eta zerbitzu informatikoak erabiltzeagatik, horien kostua ordaintzea eskatu ahalko zaie erabiltzaileei.

Zioak: Liburutegi zerbitzuak definitzen ditu eta foru lege proposamenaren 10. artikuluan kendutako lerrokada modu koherenteagoan txertatzen du.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua kentzeko zuzenketa. Azken lerrokada kentzea proposatzen da, “...eta oinarrizko zerbitzuak...” direnetik hasita.

Zioak: Estiloa hobetzea.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hurrenkera aldatzea proposatzen da, 12. artikuluekin. Era berean, testua ere aldatzea proposatzen da. Hauxe da berria:

“Nafarroako liburutegien sistemaren zerbitzuen kartera da herritarrei irakurketa publikoaren mapari jarraikiz ematen zaizkien liburutegi zerbitzuen multzoa. Zerbitzuen karterak adieraziko du zeinek ematen duen eta noiz den zerbitzu bakoitza, nahikotasun eta kalitate mailak zehazturik.”

Halaber proposatzen da bigarren lerrokadan “Nafarroako Liburutegien Kontseiluari” hitzen ordez “Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari” jartzea.

Bigarren lerrokadan, “liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, aztertu eta gaurkotuko du” esaldiaren hasieran “Nafarroako” gehitzea.

Zioak: Artikuluen ordena aldatuz irakurketa publikoaren maparen gaineko arauak zerbitzuen karteraren aurretik ageri da, kartera mapak ezartzen baitu. Testu hobetzen du eta egindako beste proposamen batzuekin koherentzia handiagoa du.

21. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua, Zerbitzuen kartera, aldatzeko zuzenketa. Artikuluaren amaieran bi puntu gehitzea proposatzen da, hauexek alegia:

“3. Guztiarekin ere, helduentzako nola haur eta gazteentzako oinarrizko zerbitzu gutxienekoak hauexek dira:

a) Argitalpen monografikoak eta seriatuak aretoan bertan kontsultatzea.

b) Agiriak kopiatzea lege ezarritako arauekin bat.

c) Informazioa eta erreferentzia.

d) Liburuen banakako mailegua.

e) Liburutegien arteko mailegua.

f) Informazioa eskuratzea teknologia berrien bidez.

4. Oinarrizko zerbitzuak emateko kontuan hartu beharko dira eskola eta unibertsitate liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta interes publikoak.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan bezala, jatorrizko proposamena hobetu nahi dugu gutxieneko zerbitzu oinarrizkoak zehazturik, Nafarroako liburutegietako langileen iradokizunak kontuan hartuta.

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluko hirugarren eta laugarren lerroak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru legearen artikuluen arteko koherentzia hobetzen du.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Nafarroako liburutegi publikoak" kendu eta haren ordez "Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiak" jartzea proposatzen da.

Halaber proposatzen da bigarren lerrokadari azken lerrokadaren edukia gehitzea eta "Nafarroako Liburutegien Kontseiluari" hitzen ordez "Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari" jartzea.

Zioak: Bigarren eta azken lerrokadak bateratuz gero irakurketa publikoaren maparen aldaketek onespenez baina garrantzi handiago izateak dakarren kontraesana ez da gertatuko.

24. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hirugarren lerrokada gehitzea proposatzen da. Hauxe da:

Irakurketa publikoaren mapak irakurketa eremuak zehaztu eta zedarrituko ditu eta identifikatuko du Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren barrenean zein diren liburutegi publikoaren oinarriko zerbitzuez gain haien eremuan liburutegi zabalkunderako zerbitzuak eta liburutegien arteko mailegu zerbitzuak, baita irakurketa publikoaren

mapak berak edo zerbitzuen karterak ezarritakoak ere, eskaintzen dituztenak.

Zioak: Liburutegiei buruzko foru lege proposamenaren 17.etik 19.era bitarteko artikuluen esanahia jasotzen du eta bateragarri egiten du foru legean bertan aurreikusitako plangintza eta kudeaketa tresnekin.

25. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Azken lerrokadako azken zatia kentzea, "Nolanahi ere, liburutegi publikoetako..." hitzetatik hasita.

Zioak: Terminologiarekin bat etortzea.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Titulua eta testua zuzendu behar dira, "irakurketa publikoaren" hitzen ordez "Nafarroako liburutegi publikoetako" jartzeko, eta gauza bera lehen lerrokadari.

Zioak: Terminologia egokiagoa.

27. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

"14. artikulua. Nafarroako Liburutegia.

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, -aldizkako izan zein ez, ikusizkoa, soinuak eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

2. Nafarroako Liburutegiaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegia nagusia den aldetik:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

f) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerako guztiak.”

Zioak: Foru legearen 14 eta 15. artikuluetako edukia bateratu eta errazten du eta titulua egokiagoa da proposaturiko edukirako.

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 14. artikuluan sarturiko edukia.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturik daude Nafarroako Liburutegia eta hitzarmen bidez sisteman sartzen diren udal eta eskualdeko liburutegiak (egun denek dute hitzarmena Hezkuntza eta Kultura Departamentuari). Ez du zentzurik liburutegi publikoen sare bat eratzeko liburutegi publikoen sistemako liburutegi guztiekin, Nafarroako Liburutegia izan ezik.

Foru lege proposamenean aurreikusiriko sarearen kudeaketa irakurketa publikoaren mapan ezarritakoaren menpe dago.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Edukia 12. artikuluan jasorik dago.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Edukia 12. artikuluan jasorik dago.

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa. Liburutegi motak. Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordezteko proposatzen dugu:

18. artikulua. Liburutegi publikoen sarearen egitura

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarearen barruan liburutegi eta liburutegi zerbitzu mota hauek daude, eginkizunen arabera:

- a) Eremuko liburutegi zentralak.
- b) Hiriko liburutegi zentralak.
- c) Herrietako liburutegiak.
- d) Liburutegi zerbitzu ibiltariak
- d) Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak.

Zioak: Jatorrizko proposamena hobetzea liburutegi publikoen sareari dagokionez, eman beharreko oinarriko zerbitzuak hobeki zehazturik. Liburutegiko langileen iritziz liburutegien eta liburutegiko zerbitzuen sailkapena argiagoa eta egokiagoa da.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Edukia 12. artikuluan jasorik dago.

34. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

“Liburutegi publikoen sarea”, III. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa. 19. artikulua atzetik beste artikulua bat gehitzea proposatzen da, hauxe alegia:

“20. artikulua. Hiriko liburutegi zentrala.

1. Hiriko liburutegi zentralak udalerriko gaineko liburutegiak eta liburutegi zabalkunderako zerbitzuak koordinatzen ditu, irakurketa publikoaren mapak ezarritako moduan, eta aholkuak eta laguntza ematen dizkie.

2. 20.000 biztanletik gora dituzten herriek liburutegi bat beharko dute, hiriko liburutegi zentralari eskatzen zaizkien baldintzak eta dituzten eginkizunak beteko dituen, Nafarroako Liburutegi Nagusiak liburutegi zentral gisa egin behar duen koordinazio lana baztertu gabe.

Zioak: Kapitulu honi egindako beste zuzenketa batzuetan bezala, asmoa da jatorrizko proposamena hobetzea liburutegi publikoen sareari dagokionez, hiriko liburutegi zentralari buruzko artikulua batekin, Nafarroako liburutegietako langileen iradokizunak kontuan hartuta.

35. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

“Herrietako liburutegiak”, 20. artikuluko bigarren lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Hiriko liburutegi zentralari buruzko artikulua berri bat jaso duen zuzenketa aurkeztu dugunez, liburutegi mota hori, herrietako liburutegiaz bestelakoa, hobeki islatzearren, bigarren lerrokada mantentzeak ez du zentzurik.

36. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

20. artikulua aldatzeko zuzenketa. Titulua, “Herrietako liburutegiak” aldatu eta haren ordez “Udal eta eskualdeko liburutegiak” jarri eta testu hau izatea proposatzen da:

“20. artikulua. Udal eta eskualdeko liburutegiak.

Udal liburutegiak dira tokian tokiko udalerrian edo eskualdean irakurketa publikoaren mapari jarraikiz liburutegiko gutxieneko zerbitzuak ematen dituztenak.

20.000 biztanletik gorako herri guztiek hiri-liburutegi zentral bana izan beharko dute, irakurketa publikoaren mapak ezarritako gainerako zerbitzu guzuekin edo liburutegiekin koordinaturik.

Zioak: Foru legearen beste xedapen batzuekin koherentzia handiagoa izatea.

37. ZUZENKETA**FORU PARLAMENTARI****MILAGROS RUBIO SALVATIERRA****ANDREAK AURKEZTUA**

21. artikulua aldatzeko zuzenketa, lerrokada berri batekin. Hona:

“Liburutegi publikorik ez duten herri guztietan irakurketa publikoaren zerbitzua eskura izatea bermatuko da hiru urteko epean, gehienez, liburutegi zabalkunderako zerbitzuen bidez.”

Zioak: Garrantzitsua da zerbitzu hori zabaltzea liburutegi publikorik ez duten herri guztietara, herritar guztiek, bereizkeriarik gabe, eskubidea izan dezaten.

38. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lerrokadei zenbakiak paratu eta beste lerrokada bat, laugarrena, gehitzea proposatzen da:

“4. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako liburutegien sistemari sarturiko liburutegien bidez eta irakurketa publikoaren mapari jarraikiz, liburutegi zabalkunderako programak sustatuko ditu, bai eta horiek gauzatzen diren ingurunean egon daitezkeen beste kultur zerbitzuekin koordinatzea ere.

Zioak: Testua hobetu eta zerbitzu mota argitzen du, eta egokiagoa da, foru legearen beste xedapen batzuekiko.

39. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

III. tituluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“Gutxienerako zerbitzu oinarritzkoak.

“Gutxienerako zerbitzu oinarritzotzat eta beraz, zerbitzu libre eta doakotzat hauexek hartuko dira:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen irakurketa eta kontsulta, aretoan.

b) Orientazioa, informazio bibliografikoa eta erreferentzia.

c) Liburu eta ikus-entzunezko materialen mai-legua.

d) Informazio eta Internet zerbitzua.

e) Erabiltzaileentzako prestakuntza.

Edozein kasutan, liburutegi publikoek zerbitzu bereziak eman dituzte helduentzat eta haurrentzat.

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da gutxienerako zerbitzu oinarritzkoak zehaztea.

40. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

“Liburutegi publikoen sarea”, III. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa. 21. artikulua atzetik beste artikulua bat gehitzea proposatzen da, hauexek dira:

“22. artikulua. Liburutegi zerbitzu ibiltariak

Eremuko liburutegi zentral baten edo hiriko liburutegi zentral baten menpeko diren liburutegi zerbitzu ibiltarien helburua da irakurketa publikoa eskaintzea zerbitzu egonkorrik ez dagoen tokietan.

Zioak: Kapitulu honi egindako beste zuzenketa batzuetan bezala, asmoa da jatorrizko proposamena hobetzea liburutegi publikoen sareari dagokionez, liburutegi zerbitzu ibiltaria zehaztuz, zenbait tokietan eta urteko garai batzuetan, udan adibidez, oso zabalduko baitago. Nafarroako liburutegietako langileen iradokizunak hartu ditugu kontuan.

41. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“22. artikulua. Laguntza zerbitzuak.

1. Laguntza zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dira, Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiei sostengu logistikoa eta materiala, aholkularitza eta beste edozein motatako laguntza eta lankidetzak eskaintzeko.

2. Zerbitzu horiek laguntza eta lankidetzak ematen dute honako arlo hauetan: funtsen hautaketa, materialen erosketak eta katalogazioa, katalogo kolektiboaren koordinazioa eta kudeaketa, liburutegien arloko ikerketa, langileentzako prestakuntza iraunkorra, kudeaketa administratiboa eta langileena eta antzekoak.”

Zioak: Testu berria proposatzen da, arau hau eta eginkizunei buruzkoa (foru lege proposamenaren 22 eta 23. artikulua) bildu, akats sintaktiko eta sistematiko batzuk zuzendu eta edukia sinplifikatu baitu.

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua kokapena aldatzeko zuzenketa. Sistema arautzen duen tituluan kokatu beharko litzateke, sisteman sartzearen ondorioei eta liburutegi zabalkunderako zerbitzuei buruzko arauen atzetik.

Zioak: Legegintza aldetik hobekuntza teknikoa.

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Gehiena 22. artikuluko proposamenaren sarturik dago eta gainera akatsak ditu, arautzean eta sistematikan.

44. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa, letra bat, j), erantsiz. Hona:

j) Funts bikoiztuen, sobran daudenen eta zaharkituen tratamendua.

Zioak: Bete beharreko eginkizun bat, lege proposamenean ageri ez dena, agerraraztea.

45. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru legearen 24, 25, 26 eta 27. artikuluen arauak nahasiak eta irregularrak dira ikuspuntu juridikotik.

46. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“25. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak.

Honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak:

a) Nafarroako liburutegien sistemaren alderdiak zuzendu eta garatuko dituzten erregelamenduak ematea, hala nola, Nafarroako liburutegien sistemaren koordinazioa, liburutegiko kudeaketaren oinarri orokorrak, azpiegituren baldintza teknikoak, bildumen printzipioak, langileak eta antzeko gaiak.

b) Irakurketa publikoaren mapa onetsi eta gaurkoturik edukitzea.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, berrikusi eta gaurkotzea.

d) Nafarroako liburutegien sistemaren laguntza zerbitzuak garatu eta kudeatzea.

e) Liburutegi zabalkunderako programak sustatu eta laguntzea.

f) Nafarroako liburutegien sistema osatzen duten zentroak eta liburutegi guztiak ikuskatu eta zerbitzuen kartera betetzen ote den ebaluatzea.

g) Liburutegiak eta liburutegi zerbitzuak sortu eta hobe daitezten sustatzea, bai eta Nafarroako liburutegi sistemako liburutegien funts bibliografikoen kopurua handitzea eta teknologia berriak sartzea.

h) Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa bost urtean taxutzea berriz, bertan garatzeko liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak, epe motz eta luzerako helburuak zehazteko eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publikoaren mapak eta kudeaketarako gainerako tresnek zedarrituriko esparruan.

Zioak: Arautzea hobetzen du ikuspuntu juridikotik.

47. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

26. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“26. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Toki entitateen eskumenak liburutegien arloan Nafarroako toki administrazioari buruzko 8/1990 Foru Legean ezarritakoak dira.

Eskumen horiek Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan erabiliko dira, zenbait printzipioen arabera -koordinazioa, eraginkortasuna eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua-, irakurketa publikoaren mapak xedatutakoaren barrenean, bai eta toki entitateek eta Nafarroako Gobernuak izenpeturiko hitzarmenetan, halakorik izenpetzen bada, xedatutakoaren barrenean ere.”

Zioak: Zehaztasun juridiko eza eta proposamenak, eskumenak esleitu baino betebeharrak inposatzen baititu, eragiten duen nahasmena zuzentzen ditu.

48. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: V. kapituluaren hasieran azaldutako arrazoiengatik. Horren esanahia jasorik dago foru

lege proposamenaren 26. artikulua aldatzeko proposaturiko testuan.

49. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24, 25, 26 eta 27. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lekuz aldatzea proposatzen da, xedapen orokorren I. tituluan kokatzeko.

Zioak: Arau horien kokalekua da, izaera orokorra dutenez, I. titulua, xedapen orokorrei buruzkoa.

50. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28, 29, 30, 31 eta 32. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege proposamenaren izena eta xedea Nafarroako liburutegien sistema da. Beraz, tituluak aipatzen dituen liburutegiek sisteman sartzeari dagokionez dute tokia foru lege proposamenan.

III. TITULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

51. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MARINÉ PUEYO DANSO ANDREAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. III. tituluan, "Unibertsitateetako liburutegiak, eskola liburutegiak, bestelako ikastetxeetako liburutegiak (irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetakoak) eta liburutegi espezializatuak" gaiari buruzkoan, testu hau proposatzen dugu:

"III. TITULUA Nafarroako Liburutegien Kontseilua

35. artikulua. Definizioa eta osaketa

1. Nafarroako Liburutegien Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegi publikoen sistemarekin zerikusia duten gaitan. Horretarako, txostenak luzatuko ditu, aginduzkoak eta lotesleak.

2. Kontseiluko kideak zein diren erregelamenduz zehaztuko da eta, ordezkartzari dagokionez, irakurketa publikoarekin modu bateko zein beste-ko harremana duten sektore guztiek parte hartuko dute bertan.

36. artikulua. Eginkizunak

1. Nafarroako Liburutegien Kontseiluak honako eginkizun hauek izanzen ditu, erregelamenduz ezarri ahal direnez gain:

a) Txostenak ematea liburutegien eta liburutegi zerbitzuen arloko xedapen orokorren proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz, zerbitzuen karterari buruz eta liburutegi publikoen sistemarako plan estrategikoari buruz.

b) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Nafarroako Gobernuari aholkuak ematea lege honen xede diren gaitan.

2. Nafarroako Liburutegien Kontseilua behar den guztietan bilduko da eta, gutxienez, sei hilabetean behin. Haren jardunbidea erregelamendu bidez arautuko da.

Zioak: Modua eta edukia bete gogo diren helburuetarako egokiagoa iruditzen zaigu.

52. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa, lerrokada bat erantsiz. Hona:

Liburutegi horiek zerbitzua ematen diete unibertsitateko komunitateari, ikertzaileei eta, unibertsitateak baimena ematen badu, hala eskatzen duten partikularrei.

Zioak: Zerbitzua ematea unibertsitatearen eta ikerkuntzaren esparrukoak izan gabe unibertsitateko liburutegiek dituzten baliabideak behar dituzten pertsonen.

53. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33, 34, 35 eta 36. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Parlamentuko talde honek kendu nahi dituen artikulua ordezteko artikulua berri bat sortzeko egin duen proposamenarekin bat.

54. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

IV. titulua kentzeko zuzenketa. Testutik IV. titulua, "Nafarroako Liburutegien Kontseilua", osorik kentzea proposatzen da.

Zioak: Beste idatz-zati batzuetan ere sarturik dago.

55. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikulua, eginkizunei buruzkoa, aldatzeko zuzenketa. Artikuluaren amaieran idatz-zati bat gehitzea proposatzen da, hauxe alegia:

d) Nafarroako liburutegien sistemaren liburutegi zerbitzuen kudeaketa eta kalitatea ebaluatzea.

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan bezala, xedea da Nafarroako Liburutegien Kontseiluaren eginkizunak hobetzea, gure liburutegien sistemak ematen dituen zerbitzuen ebaluazioa kontuan hartuz, horrek aukera emanen baitu b) eta c) letrak hobeki betetzeko.

56. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

IV. tituluaren beste artikulua bat, artikulua bakarria izanen litzatekeena, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.

1. Nafarroako Liburutegien Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegien inguruko gaietan.

2. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalaren eginkizunak hauexek dira:

a) Txostenak ematea liburutegien arloko xedapen orokorren proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz eta zerbitzuen karterari buruz.

b) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Erregelamenduz bere gain utzitako gainerako guztiak.

3. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalaren antolaketa, jardunbidea eta osaketa erregelamenduz ezarriko dira."

Zioak: Testua hobetzea eta proposamen eraginkorragoa egitea. Halaber, tituluaren proposaturarekin bat etortzea.

57. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Titulu bat gehitzeko zuzenketa. Tituluaren izena "Nafarroako Liburutegien Sistema" izanen litzateke, eta sistemarekin zerikusia duten artikulua guztiak hartuko litzuke.

Zioak: Beharrezkoa dirudi liburutegien sistemarekin loturiko artikulua guztiak bilduko dituen titulu bat.

58. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

Hiru xedapen iragankor gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroako irakurketa publikoaren mapa egin beharko du.

Bigarrena. Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak irakurketa publikoaren alderdi guztiak zuzendu eta garatuko dituzten arauak prestatu beharko ditu.

Hirugarrena. Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusiko dira Nafarroako liburutegi publikoak irakurketaren mapara egokitze, eraikitze lanak finantzatzeko eta liburutegien zerbitzua egokia izateko eduki beharreko giza baliabideak emateko behar diren baliabideak."

Zioak: Nafarroako liburutegiak irakurketa publikoaren mapara egokitu ahal izateko eta eraikitze lanak eta langile gastuak finantzatu ahal izate-

ko, ezinbestekoa da kontusail ekonomikoak sar-tzea aurrekontuetan.

59. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. Hona proposa-tzen den testu berria:

“Xedapen gehigarriak

Lehenbizikoa. Lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehienez, Hezkuntza eta Kultu-ra Departamentuak Nafarroako irakurketa publiko-aren mapa egin beharko du.

Bigarrena. Nafarroako hurrengo aurrekontu orokorretan aurreikusiko dira liburutegiak eraiki eta egokitzeko eta langileak hartzeko behar diren baliabideak; betiere, eman beharreko zerbitzuaren nondik norakoak eta toki entitateen ahalmen finantzario eta ekonomikoa kontuan hartuko dira.

Hirugarrena. Lege honek indarra hartzen due-nean jardunean dauden liburutegi publikoak ofi-zioz sartuko dira Nafarroako liburutegi publikoen sisteman.”

Zioak: Modua eta edukia bete gogo diren hel-buruetarako egokiagoa iruditzen zaigu.

60. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
 NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Lehena. Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehienez, Nafarroako Gobernu-ko Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafa-rroako irakurketa publikoaren mapa egin beharko du”.

Zioak: Gure xedea da, beste zuzenketa batzuetan bezala, irakurketa publikoaren mapari buruzko xedapen gehigarri honekin zabaltzea, gure ustez garrantzitsua baita Gobernuari agindua ematea, epe zehatz batekin, liburutegi plangintza-rako tresna hori egin dezan.

61. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarrena. Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusiko dira, urtero, foru lege hau betetzeko eta liburutegiak eraiki eta egokitzeko lanak finan-tzatzeko beharrezkoak diren baliabideak, bai eta liburutegi publikoen sarean sarturiko liburutegi eta zerbitzu mota guztiek behar dituzten giza baliabi-deak eta baliabide teknikoak izateko ere.”

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan bezala, xedapen gehigarri honetan agerrarazi nahi dugu garrantzizko afera bat, Nafarroako liburutegi siste-maren egokitzapena eta modernizatzea lortzeko behar diren baliabideak finantzatzea alegia.

62. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hirugarrena. Lege honek indarra hartzen due-nean jardunean dauden liburutegi publikoak ofi-zioz sartuko dira Nafarroako liburutegi publikoen sisteman.”

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan bezala, asmoa da xedapen gehigarri honetan agerraraz-tea liburutegi publikoak sartzearen inguruko agin-du bat.

63. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzen-keta. Hauxe da:

“Lehen xedapen gehigarria.

Irakurketa publikoaren mapa. Lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroako irakurke-ta publikoaren mapa egin beharko du.”

Zioak: Beharrezkoa da plangintza eta kudea-keta tresna hori lehenbailehen izatea erabilgarri

64. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, irakurketa publikoarekin zerikusia duten alderdiak arautu eta garatu behar dituzten erregelamenduak prestaturik izanen ditu, lege honen 25. artikulua-ren 3. idatz-zatian ageri den bezala.”

Zioak: Beharrezkoa da erregelamendu horiek lehenbailehen garatzea.

65. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Lege honek indarra hartu eta hurrengo bost urteen barranean Nafarroako Gobernuak behar diren kontusailak sortuko ditu aurrekontuetan, Nafarroako liburutegi publikoen errealitatea irakurketaren maparen eta lege honen gainerako xedapenen eskakizunetara egokitze.”

Zioak: Beharrezkoa da aurrekontuan diru gehiago ematea, lege honen ondorioak bete ahal izateko egokiro, gaur egun aurrera egin behar delako herritarrentzako oinarritzko zerbitzu hau modernizatzen eta gaurkotzen, haren egoera ez baita, zoritxarrez, Estatuko onenetakoa, datu estatistikoek adierazten dutenez.

66. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorrak aldatzeko zuzenketa.

Lehenbizikoa. Lege honi lotu behar zaizkion egungo liburutegiak legeak indarra hartu eta hiru urteko epean, gehienez, egokitu beharko dira.

Bigarrena. Egun 1.500 biztanletik beherako herrietan dauden eta Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarekoak diren liburutegi publikoek lehengo

estatusa atxikiko dute eta beraz, legeari lotuko zaizkio gainerako liburutegi publikoak bezalaxe. Horrek ez du eragozten liburutegi horietakoren bat birmoldatu edo liburutegi zabalkunderako zerbitzu alternatiboekin ordeztu beharra.

Zioak: Modua eta edukia bete gogo diren helburuetarako egokiagoa iruditzen zaigu.

67. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

“Bost urteko epean” dioen tokian “hiru urteko epean” esan behar du.

Zioak: Gure ustez nahikoa da eginbehar hori betetzeko.

68. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUAUA

Lehen xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Erdarazko testuan, “promulgación” hitzaren ordeztu “entrada en vigor” jartzea.

Zioak: Testua zehatzagoa eta zorrotzagoa da.

69. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUAUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Testu berri hau proposatzen da:

“Nafarroako liburutegi publikoen sareko liburutegiek izaera horri gordeko dute Nafarroako liburutegi publikoen sisteman, irakurketa publikoaren mapak edo dagokion hitzarmenean xedatutakoak besterik xedatzen ez badu”.

Zioak: Foru lege proposamenaren esanahia jasotzen du, Nafarroako liburutegi publikoen sistemen taxutzea irakurketa publikoaren maparen eta hitzarmenen gain uzten duen testu berri batekin.

70. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

I. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez dirudi zentzu handirik duenik II. titulua kapitulutan zatitzeak, eta egokiagoa litzateke barneko banaketarik gabeko titulu bat, I. titulua antzera.

71. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

II. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulutan zatitzeari buruz azaldutako arrazoiak. Errazago ulertzen da eta sinpleagoa da.

72. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

III. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulutan zatitzeari buruz azaldutako arrazoiak.

73. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

IV. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulutan zatitzeari buruz azaldutako arrazoiak.

74. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

V. kapitulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Kapitulutan zatitzeari buruz azaldutako arrazoiak.

75. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

III. titulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Foru lege proposamenaren izena eta xedea Nafarroako liburutegien sistema da. Beraz, tituluak aipatzen dituen liburutegiek sisteman sarzeari dagokionez dute tokia foru lege proposamenan.

76. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

6. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste titulu hau proposatzen da:

“6. artikulua. Nafarroako liburutegien sisteman sarzearen ondorioak”.

Zioak: Tituluak hobeki erantzuten dio 6. artikuluari emandako testu berriari.

77. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste titulu hau proposatzen da:

“7. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kontzeptua eta egitura”.

Zioak: Hobeki azaltzen du artikulua edukia.

78. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

IV. titulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.”

Zioak: Eraginkorragoa da atal bat sortzea Nafarroako Kultur Kontseiluaren barnean, kulturaren arlo desberdinetan kontseilu sektorialak sortzeak Kultur Kontseiluarekin batera aritzeko arazoak eta galerak ekar ditzakeelako.

79. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUAUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Bosgarren lerrokadan “nazioko” kendu behar da.

Zioak: Erabilitako nomenklatura egokitzea gure Foru Komunitateari dagokionera eta foru legeari emandako izenera.

80. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Azken lerrokadan, "Nafarroak dituen eskumen erabateko bidezkoa da liburutegiei buruzko lege bat onestea" hitzen ordeztu, honakoak jartzea: "Nafarroako Foru Komunitateak, eskumen erabateko bidezkoa da Nafarroako liburutegien sistemari buruzko foru lege bat onestea".

Zioak: Erabilitako nomenklatura egokitzea gure Foru Komunitateari dagokionera eta foru legeari emandako izenera.

81. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Bi lerrokada berri gehitzea proposatzen da, UNESCOren manifestuari buruzko bigarren lerrokadaren ondorengatik. Hauexek dira:

Europako Parlamentuak liburutegiei buruz 1998ko urrian emandako erabakiak informazioaren gizarterako estrategiatzat hartzen ditu liburutegiak, eta kontuan hartu beharrekoak kultura eta hezkuntza politikaren arloko plan eta programean, eta halaber aurrekontuen inguruko erabakietan, ezagutza eta kultura eskuratzeko bide antolatu nagusietako bat diren heinean; erabakiak gomendio egiten die kide diren estatuei neurriak har ditzaten liburutegiek zeregin aktiboa betetzeko ahalmen izan dezaten gizarterean.

Era berean, Kopenhageko 1999ko adierazpenaren arabera, liburutegi publikoek, gizarterean

premia aldatzeko asetzen joateko, beren zereginak eta baliabideak berrantolatu eta beren zerbitzuak berriz taxutu behar dituen kultur erakundeak dira. 2000ko maiatzean, Europako Kontseiluak eta Eblidak hainbat pautak ezarri zuten liburutegien gaineko legeriaz eta politikaz Europar Batasunaren sare elektronikoetara sartzeko, zerbitzu maila, finantzabideak, hezkuntza eta prestakuntza bezalako gaien inguruan, zenbait printzipiotan oinarriturik, hala nola, adierazpen askatasuna eta informazioa libreki eskura izatea."

Zioak: Beste zuzenketa batzuetan bezala, xedea da oinarri teorikoa osatzea gai honi buruzko adierazpen instituzionalak erantsirik.

82. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Bosgarren lerrokadaren ondorengatik beste lerrokada bat gehitzea proposatzen da:

Legeria bat, UNESCOren aipatutako manifestu horrez gain honakoak ere bilduko dituenak: Kopenhageko 1999ko urriko Adierazpena izenekoaren iturburu izan ziren printzipioak eta proposamenak -adierazpen haren kariatara Europako 31 herrialdeko arduradun politiko eta administratiboak elkartu ziren, liburutegi publikoek indarra hartzen ari den informazioaren gizarterean bete beharreko papera funtsezkoa aztertzearen asmoarekin-, eta bestetik Europako Parlamentuak 1998ko urriaren 23an liburutegiek gizarterean bete beharreko paperari buruz onetsitako Erabakia eta Europako Kontseiluaren eta EBLIDAREN pautak liburutegien arloko legeriaz eta politikaz Europar Batasunaren."

Zioak: Proposamen eta erabaki horiek modu sistematikoan, gaurkotuan eta asmo handiez biltzen dituzte liburutegiek gizarterean bete beharreko papera gauzatzen jarraitu beharreko printzipioak eta pautak.

Foru Lege proposamena, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2002ko apirilaren 15eko 35. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahaliko dira:

– 1, 9, 51, 54, 59 eta 66 zenbakiko zuzenketa, foru parlamentari Mariné Pueyo Danso aurkeztuak.

– 10, 11, 12, 16, 17, 19, 20, 24, 25, 26, 27, 33, 34, 35 eta 36. artikuluen testua berreskuratzeko boto partikularrak, eta 21, 32, 34, 55 eta 61 zenbakiko zuzenketa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– 4 zenbakiko “in voce” zuzenketa, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– 1 zenbakiko “in voce” zuzenketa eta 15, 44, 52, 63, 64, 65 eta 82 zenbakiko zuzenketa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztuak.

“In voce” zuzenketa hauexek dira:

– 4 zenbakiko “in voce” zuzenketa, III. titulua eta 28, 29, 30, 31 eta 32. artikulua kentzeko.

Zioak: Foru lege proposamenaren izena eta xedea Nafarroako liburutegien sistema da. Beraz, tituluak aipatzen dituen liburutegiek sisteman sartzeari dagokionez dute tokia foru lege proposamenan.

– 1 zenbakiko “in voce” zuzenketa, 6. artikuluan lerroalde berri bat gehitzeko. Hona testua:

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren liburutegien arloko organo eskudunak eta liburutegien ardura duten agintariak eta liburutegiek antolakuntzako egiturak eta ikuskerak eta kontrol tresnak garatu beharko dituzte elkarrekin, liburutegiko zerbitzuetarako funts publikoek ahal den errentagarritasun handiena berma dezaten; horretarako, etekin ebaluazio egokiak egin eta liburutegi mota desberdinen kalitatea kontrolatzeko bideak taxutu beharko dituzte.

Zioak: Gure ustez, legeak jaso behar ditu liburutegi zerbitzuen kalitatearen kudeaketaren eta ebaluazioaren inguruko gaiak. Ildo horretan, Europako Kontseiluaren eta EBLIDAREN jarraibideetan, 7. puntuan, zuzenketa honetan jasotakoa adierazirik dago. Kalitatearen ebaluazio eta kontrolerako sistema objektibo eta fidagarria ezarri behar da, ahuleziak eta alderdi sendoak antzemanen dituen, hari esker uneoro bermatzeko herritarrentzako zerbitzua ahalik eta onena izatea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

IRIZPENA Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Gizarte demokratiko baten askatasuna, garpena eta aurrerapena erdiesteko bidea herritarrak beren eskubideez baliatzen heztea eta informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratzen laguntzea da, nor bere erabakiak har ditzan eta gizartearen bizitzan paper aktiboa izan dezan. Informazioa izatea eta menpean edukitzea integrazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako faktorea da. Beraz, komeni da antolatu eta bermatzea herritarrek informazioa libreki eskura izatea.

UNESCOren iritzia da liburutegi publikoak hezkuntza, kultura eta informaziorako indar bizia dela, bakea, ongizatea eta kulturen arteko elkarriketa lortzeko eragile funtsezkoa. UNESCOk 1994an liburutegi publikoei buruz emaniko manifestuak ezartzen du liburutegi publikoak erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala dela.

Liburutegi publikoaren lehentasunezko lanetako bat da herritarrei eskaintzea ezinbesteko eta oinarrizko informazioa, hura guztien eskura jarriz, edozein delarik ere prestakuntza maila, gizarte egoera edo bizitokia. Horrela, liburutegia lagungarri gertatzen da informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena eraikitze bidean.

Komunikazioen garapen teknologikoari esker informazio eta kultur bolumena etengabe handitu da sareetan edo bestelako euskarri digitaletan. Liburutegi publikoek bermatu behar dute horiek

eskuratzea, usadiozko komunikabideen eta berrien arteko zubi lana eginez.

Liburutegi publikoaren gaineko erantzukizuna tokiko administrazioena da. Berriazko legeri baten euskarria eduki behar du eta funts publiko- en bidez finantzatu.

Erantzukizun horretaz jabeturik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak liburutegi publikoak sortzen eta mantentzen lagundu izan du. 1950eko abuztuaren 12an Nafarroako Foru Diputazioak Liburutegi Publikoen Sarea sortzeko erabakia hartu zuen. Orduz geroztik, udalekin lan- kidetza hitzarmenak izenpetuz, liburutegien kopu- rua handitzen joan da, baina epe luzerako plan- gintza baten falta sumatu da, baita Nafarroako geografia osoan liburutegi zerbitzuaren garapen orekatua antolatzeko irizpide orokorra ere.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe- tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.9 artikulua dio Nafarroak eraba- teko eskumena duela "Historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia eta zientzia-ondarea, esportazioaren eta espolioazioaren aurka ondare horren defentsarako Estatuak dituen ahalmenak deusetan ukatu gabe."

Lege Organiko horren 44.10 artikulua, berriz, ezartzen du Nafarroak erabateko eskumena duela, halaber, honen gainean: "Agiritegiak, libu- rutegiak, museoak, hemerrotekak eta Estatuaren titulartasunekoak ez diren kultur-gordailurako gai- nerako zentroak."

Bestalde, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legeak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 26.1 artikulua b) idatz-zatian zehazten du 5.000 biz- tanletik gorako udalerriek honako zerbitzu hauek eman beharko dituztela: parke publikoa, liburutegi publikoa, azoka eta hondakinen tratamendua."

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko eta Toki administrazioetako eskumen erabatekoak baliatuz, bidezkoa da Nafarroako liburutegien sistemari buruzko foru lege bat onestea, liburutegien zerbitzua zehaztu eta arautzeko. Lege horrek ezarri beharko ditu, halaber, zerbitzu horrek eduki behar- rreko ezaugarriak eta egitura, zertarako eta bi alderdi hauek bermatzeko: zerbitzua bera eta Nafarroako herritarrek informazioa publikoki esku- ratzeko eta irakurketarako duten eskubidea egiaz erabili ahal izatea.

Nafarroako liburutegi zerbitzua garatzeko esparrua eta, horren barrenean, liburutegi publiko- arena, berriazko lege baten bidez zehazteko garaia da, eta horren bidez printzipio orokorrak

taxutu eta administrazioen zerbitzu estandarrak eta erantzukizun mailak ezarri.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea

Foru lege honen xedea da Nafarroako liburute- gien sistema arautzea, bai eta herritar guztiek ira- kurketa eta informazioa eskura izan dezaten bermatu eta erraztea jakintzaren gizartearen eta teknologia berrien eremuaren barrenean.

2. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua.

Liburutegia da, foru lege honen ondorioetara- ko, liburuez, aldizkako argitalpenez, grabatuez, mapez, soinu, ikus-entzunezko eta multimedia grabazioez, dokumentazio grafikoez eta bestelako material bibliografikoez, eskuizkribuez, inprima- kiez edo edozein euskarritan erreproduziturikoez osaturiko edozein multzo antolatu, baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek bildu, hau- tatu, katalogatu, gorde eta zabaltzea, baita pertso- na guztien eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika, espazio eta langileen arloetakoak– era- biliz informazioa, ikerketa, hezkuntza eta aisia helarazteko.

3. artikulua. (KENDUTA).

4. artikulua. (KENDUTA).

25. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak.

Honako hauek dira Nafarroako Foru Komunita- teko administrazioaren eskumenak:

a) Nafarroako liburutegien sistemaren alder- diak zuzendu eta garatuko dituzten erregelamen- duak ematea, hala nola, Nafarroako liburutegien sistemaren koordinazioa, liburutegiko kudeaketa- ren oinarri orokorrak, azpiegituren baldintza tekni- koak, bildumen printzipioak, langileak eta antzeko gaiak.

b) Irakurketa publikoaren mapa onetsi eta gaurkoturik edukitzea.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, berrikusi eta gaurko- tzea.

d) Nafarroako liburutegien sistemaren laguntza zerbitzuak garatu eta kudeatzea.

e) Liburutegi zabalkunderako programak sus- tatu eta laguntzea.

f) Nafarroako liburutegien sistema osatzen duten zentroak eta liburutegi guztiak ikuskatu eta zerbitzuen kartera betetzen ote den ebaluatzea.

g) Liburutegiak eta liburutegi zerbitzuak sortu eta hobe daitezen sustatzea, bai eta Nafarroako liburutegi sistemako liburutegien funts bibliografikoaren kopurua handitzea eta teknologia berriak sartzea.

h) Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa bost urtean taxutzea berriz, bertan garatzeko liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak, epe motz eta luzerako helburuak zehazteko eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publikoaren mapak eta kudeaketarako gainerako tresnek zedarrituriko esparruan.

26. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

Toki entitateen eskumenak liburutegien arloan Nafarroako toki administrazioari buruzko 8/1990 Foru Legean ezarritakoak dira.

Eskumen horiek Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan erabiliko dira, zenbait printzipioren arabera -koordinazioa, eraginkortasuna eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua-, irakurketa publikoaren mapak xedatutakoaren barrenean, bai eta toki entitateek eta Nafarroako Gobernuak izenpeturiko hitzarmenetan, halakorik izenpetzen bada, xedatutakoaren barrenean ere.

TITULU BERRIA

Nafarroako liburutegien sistema

5. artikulua. Nafarroako liburutegien sistema

1. Nafarroako liburutegien sistema Nafarroako Foru Komunitateko liburutegien eta liburutegi-organoko eta zerbitzuen multzo antolatua da.

2. Nafarroako liburutegien sistema honakoek osaturik dago:

a) Liburutegien arloan eskumenak dituzten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki administrazioaren organoak.

b) Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

d) Unibertsitateetako liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta liburutegiaren titularrak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izenpeturiko hitzarmenaren bidez -Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena- Nafarroako liburutegien sisteman sartzen diren gainerako liburutegiak. Hitzarmen horretan zehaztuko dira liburutegiaren jardunbidea, instalazioak, zerbitzuak, langileak eta finantza bidea, bai eta helburuak betetzeko behar diren beste gai guztiak.

e) irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako eskola liburutegiak erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

6. artikulua. Nafarroako liburutegien sisteman sartzearen ondorioak.

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegi guztien jardunbidea Nafarroako Gobernuak emaniko erregelamenduzko xedapenei lotuko zaie, bai eta sisteman sartzeko aurreko artikulua aipatzen duen hitzarmenari ere, halakorik badago.

2. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiak laguntza zerbitzuez baliatu ahalko dira, baita erregelamenduz ezarritako diren edo sisteman sartzeko hitzarmenean adierazirik dauden beste laguntza edo lankidetzak mota batzuek ere.

3. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiek parte hartu beharko dute lankidetzak programa komunitatean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren liburutegien arloko organo eskudunak arau indardunak oro betetzen dituen egiaztatze eskatutako datu bibliografikoak eta estatistikoak eta edozein informazio eman beharko dio liburutegiak eta organo horrek jarduna ikuskatzeko izendatzen dituen funtzionarioei utzi beharko die haien lana egiten.

21. artikulua. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak

1. Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

2. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, erantzun beharreko premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: zerbitzu ibiltariak, teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

3. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke baina, betiere, eremuko liburutegi zentralak koordinaturik beteko dira.

4. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegien bidez eta irakurketa publikoaren mapan eta zerbitzuen karteran xedatutakoari jarraikiz, liburutegi zabalkunderako programak sustatuko ditu, bai eta horiek gauzatzeko diren ingurunean egon daitezkeen beste kultur zerbitzuekin koordinatzea ere.

22. artikulua. Laguntza zerbitzuak.

1. Laguntza zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dira, Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiei sostengu logistiko eta materiala, aholkularitza eta beste edozein motatako laguntza eta lankidetzak eskaintzeko.

2. Zerbitzu horiek laguntza eta lankidetzak ematen dute honako arlo hauetan: funtsen hautaketa, materialen erosketa eta katalogazioa, katalogo kolektiboaren koordinazio eta kudeaketa, liburutegien arloko ikerketa, langileentzako prestakuntza iraunkorra, kudeaketa administratiboa eta langileena eta antzekoak.

II. TITULUA**Nafarroako liburutegi publikoen sistema****I. KAPITULUA (KENDUTA)**

7. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kontzeptua eta egitura.

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistema liburutegi publikoen multzo antolatua da eta, irakurketa publikoaren mapan ezarritakoarekin bat, herritar guztien eskura jartzen du liburutegi zerbitzuen kartera.

2. Honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen dutenak:

a) Nafarroako Liburutegia.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin hitzarmenak izenpetuz Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturiko udal eta eskualdeko liburutegi publikoak.

8. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketarako ildoak.

Eremu geografikoen arabera dezentralizazioa, partaidetza eta liburutegiaren eta haren zerbitzuen ebaluazioa dira Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketaren ildo nagusiak.

Liburutegi publikoek, haien ebaluazioa errazteko, urtero eginen dute jardueraren eta jardunbidearen datu nagusiak eta hurrengo urteko aurreikuspenak bilduko dituen oroit-idazki bat.

9. artikulua. (KENDUTA).

10. artikulua. Liburutegi publikoaren kontzeptua.

Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailetakoa informazio zerbitzuak –baita kontsulta eta mailegukoak ere– eskaini, eta herritar guztien eskura

daudenak, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe.

Liburutegi publikoak zerbitzu bereziak eskainiko dizkiete helduei eta haurrei. Era berean, kontuan hartuko du Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa, eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak, alegia, araututakoarekin bat.

10 bis. artikulua. Liburutegi zerbitzuen definizioa.

1. Hauexek dira liburutegi zerbitzu oinarrizkoak:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen, dokumentu elektroniko, ikus-entzunezko eta multimedien irakurketa eta kontsulta, aretoan.

b) Informazioa eta erreferentzia, orokorrak eta Europako Batasunekoak, eskura izatea.

c) Liburuen eta bestelako materialen banakako mailegua.

d) Liburutegien arteko mailegua.

e) Internet eta lineako informazio zerbitzuak eskura izatea.

2. Gutxieneko zerbitzuak hauexek dira:

a) Erreferentziako lan nagusien kontsulta.

b) Liburuen banakako mailegua.

3. Nafarroako liburutegi publiko guztiek eskainiko dituzte dohainik oinarrizko zerbitzuak. Halere, liburutegien arteko mailegu zerbitzua eta zerbitzu informatikoak erabiltzeagatik, horien kostua ordaintzea eskatu ahalko zaie erabiltzaileei.

12. artikulua. Irakurketa publikoaren mapa.

Irakurketa publikoaren mapa liburutegiko plangintzarako tresna bat da, eta bertan jasotzen dira Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiak, irakurketa publikoaren premiak eta populazio guneei dagozkien zerbitzu moduluak.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsi eta gaurkoturik edukiko du Nafarroako irakurketa publikoaren mapa. Nafarroako Gobernuak eginen ditu irakurketaren maparen aldaketak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari kontsulta egon ondoren.

Irakurketa publikoaren mapak irakurketa eremuak zehaztu eta zedarrituko ditu eta identifikatuko du Nafarroako liburutegi publikoaren sistemaren barrenean zein diren liburutegi publikoaren oinarrizko zerbitzuez gain haien eremuan liburutegi

zabalkunderako zerbitzuak eta liburutegien arteko mailegu zerbitzuak, baita irakurketa publikoaren mapak berak edo zerbitzuen karterak ezarritakoak ere, eskaintzen dituztenak.

11. artikulua. Zerbitzuen kartera.

Nafarroako liburutegien sistemaren zerbitzuen kartera da herritarrei irakurketa publikoaren mapari jarraikiz ematen zaizkien liburutegi zerbitzuen multzoa. Zerbitzuen karterak adieraziko du zeinek ematen duen eta norentzat den zerbitzu bakoitza, nahikotasun eta kalitate mailak zehazturik.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari kontsulta egin ondoren, liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, aztertu eta gaurkotuko du.

13. artikulua. Nafarroako liburutegi publikoetako sistemako langileak

Nafarroako liburutegi publikoetako sistemako zentroek eta liburutegiek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai lanpostuak eskatzen duen kalifikazio teknikoan.

Langileen baldintza profesionalak eta lanpostuak eskuratzeko modua erregelamenduz ezarriko dira.

II. KAPITULUA (KENDUTA)

14. artikulua. Nafarroako Liburutegia.

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, -aldizkakoa izan zein ez, ikusizkoa, soinuakoa eta multimedia, inpresoak edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

2. Nafarroako Liburutegiaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu, Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegia nagusia den aldetik:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

f) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerako guztiak.

15. artikulua. (KENDUTA).

III. KAPITULUA (KENDUTA)

16. artikulua. (KENDUTA).

17. artikulua. (KENDUTA).

18. artikulua. (KENDUTA).

19. artikulua. (KENDUTA).

20. artikulua. Udal eta eskualdeko liburutegiak.

Udal liburutegiak dira tokian tokiko udalerrian edo eskualdean irakurketa publikoaren mapari jarraikiz liburutegiko gutxieneko zerbitzuak ematen dituztenak.

20.000 biztanletik gorako herri guztiek hiri-liburutegi zentral bana izan beharko dute, irakurketa publikoaren mapak ezarritako gainerako zerbitzu guneeekin edo liburutegiekin koordinaturik.

IV. KAPITULUA (KENDUTA)

23. artikulua. (KENDUTA).

V. KAPITULUA (KENDUTA)

24. artikulua. (KENDUTA).

27. artikulua. (KENDUTA).

III. TITULUA

Unibertsitateetako liburutegiak, eskola liburutegiak, bestelako ikastetxeetako liburutegiak (irakaskuntza ez-unibersitarioko ikastetxeetakoak) eta liburutegi espezializatuak

28. artikulua. Unibertsitateetako liburutegiak

Unibertsitateko liburutegia da unibertsitateko komunitateari jakintza eskuratu, transmititu eta ezagutzan aurrera egitea ahalbidetzen dion erakundea.

Informazioa eskuratzeko, katalogaziorako, liburutegiaren arteko mailegurako, langileak prestatzeko eta balio historiko edo kultural nabarmeneko funtsak babesteko, Unibertsitateetako liburutegiak liburutegi publikoen sistemaren gainerakoekin koordinatuko dira, Nafarroako Liburutegiaren bidez.

29. artikulua. Eskolako liburutegiak

Eskolako liburutegiak oinarrizko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabat txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

Hezkuntza sistemari buruzko urriaren 3ko 1/1990 lege organikoak ezartzen du ikastetxe guztietan egon behar dela liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, ikasle eta irakasleei irekia eta foru legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adinako baliabide –dokumentalak, tokiaren aldetikoak zein langileenak– izanzen dituen.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako liburutegiaren antolaketa, jardunbidea, jarduerak eta finantziak erregelamendu batek arautuko ditu berriaz.

30. artikulua. Irakasleei laguntzeko zentroak baliabide zentro gisa

Irakasleei laguntzeko zentroei buruzko arauak ezartzen du baliabide didaktikoetarako oinarrizko zentroak direla; baliabide horien artean daude, besteak beste, ikastetxeetan curriculum garatzeko materialen eta funts dokumentalen erabilerrako informazioa eta aholkularitza eta berrikuntza didaktikoen zabalkundea.

Bestalde, irakasleei laguntzeko zentroak dira hezkuntza administrazioak unibertsitateko beste jarduneko irakasleen prestakuntzarako aurreikusiriko erakundeak. Hortaz, zentro horiek izanen dira eskola liburutegi publikoekin arduratuko diren irakasleei prestakuntza berezia emanen dietenak, bai eta eskola liburutegi oinarrizko baliabide-zentro gisa erabiltzearen inguruan irakasle guztiei eman beharreko prestakuntza orokorra ere.

31. artikulua. Eskola liburutegiaren eta liburutegi publikoen arteko lotura

Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiari liburutegiaren arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoak, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko

programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegiaren eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak hitzarmen bidez ezarri eta erregelamenduz garrantziko dira.

32. artikulua. Liburutegi espezializatuak

Funts berezia dutenak dira, batez ere jakintza-erlora berezi baten barrenean.

Liburutegi espezializatuak Nafarroako Liburutegiaren bitartez koordinatzen dira gainerako liburutegiaren sistemarekin.

IV. TITULUA

Nafarroako Kultur

Kontseiluaren Liburutegiaren Atala

33. artikulua. (KENDUTA).

34. artikulua. (KENDUTA).

35. artikulua. (KENDUTA).

36. artikulua. (KENDUTA).

Artikulu berria. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegiaren Atala.

1. Nafarroako Liburutegiaren Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegiaren inguruko gaietan.

2. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegiaren Atalaren eginkizunak hauexek dira:

a) Txostenak ematea liburutegiaren arloko xedapen orokorren proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz eta zerbitzuen karterari buruz.

b) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Erregelamenduz bere gain utzitako gainerako guztiak.

3. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegiaren Atalaren antolaketa, jardunbidea eta osaketa erregelamenduz ezarriko dira.

Lehendabiziko xedapen iragankorra. Lege honi lotu behar zaizkion egungo liburutegiak legeak indarra hartu eta bost urteko epean, gehienez, egokitu beharko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Nafarroako liburutegi publikoen sareko liburutegiak izaera horri gordeko dute Nafarroako liburutegi publikoen sistemari, irakurketa publikoaren mapari edo

dagokion hitzarmenean xedatutakoak besterik xedatzen ez badu.

Azken xedapenetan lehendabizikoa. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege

hau betetzeko behar diren arauzko xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 39,07 euro Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 » Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
---	--